

UDABARRIA BERTSOTAN 2020

HITZARMENA

**PARTE-HARTZE
HITZARMENA**

I.- HITZARMEN IZENPETZAILEAK

Alde batetik

ASIER IBAIBARRIAGA APOITA Bizkaiko Bertsozale Elkarteko Lehendakaria, eta IONE NARBAIZA GALLASTEGI, Txapelketako antolakuntza arduraduna.

Beste aldetik

Izenpeen zerrendan agertzen diran bertsolariak, gai-jartzaileak, epaileak, antolakuntza taldea eta komunikazio taldea.

JAKITERA EMOTEN DABE

Hitzarmen honetan jasotzen diran arau eta eginbideak adostu eta sinatzen dabezala, jagokozan ondorioak eta eraginak izan dagizan.

II.- ERISPIDE OROKORRAK

1. *Udabarria Bertsotan 2020* Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2020rako sailkapen fasea da.
2. Bizkaiko Bertsozale Elkartek, legezko arau guztiak betetzen dituanak, bere gain hartzen dau *Udabarria Bertsotan 2020*ren antolakuntza eta ekintza duin bat garatzeko beharrezkoak diran bitartekoak bideratzeko ardura.
3. Eskualde bakotxak, ahal dala, ordezkari bana izentau beharko dau Epaille Talderako, Gai-jartzaile Talderako eta Talde Antolatzaileerako. Eskualde guztiek ordezkari izentau ezean, Talde Antolatzailearen esku geratuko da taldeen osaketa.
4. Talde Antolatzaileak jendarteratzerako orduan beharrezkoa dan informazioa helaraziko deutse hedabideei, ixilpeko informazioa kenduta.
5. Gai-jartzaileen zeregina izango da bertsolariak bere sorkuntza-lana ahalik eta egokien garatu dagian gaiak sortu, gaien arteko oreka zaindu eta gaiak isilpean gordetzea.
6. Epaimahaiaren zeregina izango da erispide bardinakaz epaitzea bertsolarien sorkuntza lana.
7. Eskualdeen zeregina izango da bertan egiten diran saioak antolatzeko beharrezko laguntza eskaintzea.
8. Bertsolariek, gai-jartzaileek, epaileek eta aurkezleek Bizkaiko Bertsozale Elkartearen esku ixten dabez:
 - 8.1. Txapelketa honetan sortutako emaitza osoaren kudeaketa-eskubidea.
 - 8.2. Autore, interpretazio eta irudi eskubideak erabilera hau euki ahal izateko:
 - 8.2.1. Telebistaz, irratiz nahiz Internetez, zuzenean edo diferiduan, Txapelketako saioak emon ahal izateko.
 - 8.2.2. Bideo, audio, paper nahiz euskarri elektronikoetan ekoizturik lagapenak edo ustiaketak egin ahal izateko.
 - 8.2.3. Bertsozale Elkartearen Dokumentazio Zentroan artxibatzeko.
9. Txapelketa honetako antolakuntzatik eta ondorengo ekoizkinetatik eskuratu leitekezan onura ekonomikoak Bizkaiko Bertsozale Elkartearen proiektuari laguntzeko bakarrik erabili ahal izango dira. Horrela izan ezean, bertsolariek euren parte ordaintzera behartu leikie Bertsozale Elkartea.
10. Talde Antolatzaileak parte-hartzaile guztien arteko komunikazioa eta errespetua bultzatuko ditu, eta ekarpenak bideratzeko beharrezko diran lan-taldeak osatuko ditu.
 - 10.1. Txapelketan sor leitekezan desadostasunak Talde Antolatzaileari jakinarazoko jakoz, ahoz lehenengo, eta konponduko ez balira, idatziz. Hurrengo pausoa gaia Bizkaiko Bertsozale Elkartearen zuzendaritzara eroatea izango litzateke.

10.2. Parte-hartzaile danek dabe desadostasunak agertu eta zabaltzeko aukera, beti be, errespetuz egiten bada, eta albo batera itxi barik Txapelketarekiko erantzukizuna eta leialtasuna.

11. Hitzarmen honetan agertzen ez dan arazoren bat egongo balitz, Talde Antolatzailearen esku geratuko litzateke erabagia.

12. Hitzarmen honen azken interpretazinarako eskumena Talde Antolatzailearena da.

1. Izen-emotea

- 1.1. Parte-hartzaileak 18 urte beteta euki beharko ditu, edo 2020an beteko ditu.
- 1.2. Bertsozale Elkarteko bazkide izan beharko dau.
- 1.3. Ezarritako epearen barruan eta antolakuntzak adierazitako bideetatik emon beharko dau izena.

2. Bizkaiko Bertsolari Txapelketara sailkatuko dira:

- 2.1.1. Azkenengo bider 2016an (orain bi Txapelketa) Bizkaiko Txapelketan finalista izan ziranak, 2020ko Txapelketarako kanporaketa-fasean sartzeko eskubidea daukie. *Udabarria Bertsotan 2020* sailkapen fasean hasi ezker, eskubide hori galduko leukie.
- 2.1.2. Azkenengo Txapelketan, hau da, 2018koan, finalaurrekoetara sailkatzea lortu ebenak. *Udabarria Bertsotan 2020* sailkapen fasean hasi ezker, eskubide hori galduko leukie.
- 2.1.3. *Udabarria Bertsotan 2020* sailkapen fasetik puntuazino ordenaz, 36 bertsolariko taldea osatu arte. Talde bakotxetik erdi eta erdi pasauko dira aurrera, 36 bertsolariko kopurura arte. Sailkatu beharrekoen kopurua bakoitia bada, bardinketa kasuetan erabilten diran erispideak erabiliko dira zein multzotako bertsolaria pasauko dan azken jakiteko.
- 2.1.4. Ordezkoak be sailkapenaren arabera erabagiko dira.

3. Taldekatzea: A eta B multzoak

- 3.1. Parte hartzeko izena emon daben bertsolariak bi multzotan banatuko dira, erdi eta erdi (ikusit adibidea). Multzoak osatzeko aldagai bi hartuko dira kontutan:
 - 3.1.1. 2018ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketan parte hartu, kanporaketetara sailkatu, eta finalaurrekoetara heldu ez zirenak. Parte hartu eben azken saioan lotutako puntuaziñoaren arabera ordenatuko dira. *Udabarria Bertsotan* taldeburuak izango dira.
 - 3.1.2. Bestetik, lehenengoz izena emon dabenak, edota azkenengo bi txapelketetan parte hartu ez dabenak. Honeek zozketaz ordenatuko dira.

A MULTZOA		B MULTZOA	
Puntuazinoz 1	37	2	38
4	40	3	39
5	41	6	42
8	44	7	43
9	45	10	46
12	48	11	47
13	49	14	Zozketaz B1
16	Zozketaz A1	15	Zozketaz B2
17	Zozketaz A2	18	Zozketaz B3
20	Zozketaz A3	19	Zozketaz B4
21	Zozketaz A4	22	Zozketaz B5
24	Zozketaz A5	23	Zozketaz B6
25	Zozketaz A6	26	Zozketaz B7
28	Zozketaz A7	27	Zozketaz B8
29	Zozketaz A8	30	Zozketaz B9
32	Zozketaz A9	31	Zozketaz B10
33	Zozketaz A10	34	Zozketaz B11
36	Zozketaz A11	35	Zozketaz B12

4. Trukaketa eta ordezkapenak

4.1. Udabarria Bertsotan sailkapen fasean, egiaztutako eta norbanakoaren borondatearen ganetik egon leitekezan arrazoiengaitik egingo dira trukaketak eta horretarako holan jokatuko da:

4.1.1. Bertsolariak jakitun egongo dira hilabete bi arinago zein taldetan kantau beharko daben.

4.1.2. Saio bakotxean kantauko dauan bertsolari kopurua, aurrez izentutako bardina izango da. Hau da: taldea aurretiaz 6koa bada, 6koa; 8koa bada 8koa; etab.

4.1.3. Kantau baino, gitxienez, hilabete arinago egiten bada talde aldaketaren eskari arrazoitua, aldaketa egin egingo da, beti be, Talde Antolatzaileak aldaketaren arrazoiak onartzen badau.

4.1.4. Kantau baino hilabete baino epe motzagoan agertuko balitz ezin hori, antolakuntzak ahalegina egingo leuke trukaketa egiten, baina ez da bermatzen. Trukaketa egitea ezinezkoa balitz, bertsolariak bere aukera galduko leuke.

4.2. Azken saioan parte hartu ezin dauan bertsolariak bere aukera galduko dau, ezinbestean.

4.3. Ordezko bertsolaria saio guztietara joango da. Horretarako dieta izango dau. Bertsolariaren batek huts egingo baleu, bera sartuko litzateke.

- 4.3.1. Ordezko bertsolariak saiora joan ezin baleu, egun bi arinago jakinarazo beharko deutso Talde Antolatzaileari. Eta izentauta dagoan bigarren ordezkoak hartuko dau parte.
- 4.3.2. Behin bigarren ordezkoak lekua hartzen badau, hori izango da ordutik aurrerako ordezko titularra.
- 4.4. Saioa baino ordu erdi lehenago, bertsolariek aretoan bertan egon beharko dabe. Zozketa saioa hasi baino 25 minutu arinago egingo da. Zozketan ez dagoan bertsolariak abisurik emoten ez badau, ordezkoa sartuko da. Falta danak bere aukera galduko leuke.
- 4.5. Azken orduko arazorik izan ezker, Talde Antolatzailearen telefono honetara deitu 657 794 734 (lone).

5. Ordezkapen erispideak

Txapelketako Talde Antolatzaileak ordezkapenak zelan egin erabagiterakoan, bi erispide emon ditu:

- 5.1. Ordezkapena onartu edo ez, Talde Antolatzailearen erabakia izango da. Kontuan hartuko dira:
 - 5.1.1. Ordezkatzailearen eskubideek ezin dabe ordezkatuaren eskubiderik zapaldu.
 - 5.1.2. Ordezkapena eskatu dan epealdia kontuan izango da.
 - 5.1.3. Parte-hartzaileak emondako arrazoiak baliozkotzat jo beharko ditu Talde Antolatzaileak.
- 5.2. Ordezkapenak beti be multzo berean egingo dira.
- 5.3. Aldaketak zelan egin: ordezkapen kasuak bideratzeko ordena bi mailatan ezarriko da, saio berean kantatzea tokau jaken bertsolarien artean: talde-buruak batetik eta gainontzekoak, bestetik.

6. Ordezkapen prozedura:

- 6.1. Ordezkatua: antolakuntza taldeak aldaketa erispidea onartzen badeutso, hurrenkeraz saio bat atzera pasauko da aldaketa eskatu dauan bertsolaria. Saio honetan kantatzea be posible ez bada eta emondako arrazoiak Talde Antolatzaileak onartzen badau, saioz saio atzeratzen joango da ordezkapena posible izan arte.
- 6.2. Ordezkatzailea:
 - 6.2.1. Talde-buruen kasuan (diagraman urdin ilunez): Talde-buru bakarra dagoan lekuan ez da zozketarik egingo. Talde-buruak bat baino gehiago diranean, zozketa bidez saiora heldu dan azken bertsolaria izango da (2. bertsolaria)

aldaketa kasuan lehen ordezkapen aukera. Ordezkapena eskatzeko erispide berberak onartuko dira ordezkatzaileak aldaketa egin gura ez dauan kasuetan be. Aldaketa ez egiteko erispideak onartu ezker, aurrekoa (1. bertsolaria) izango litzateke ordezkatzailea.

6.2.2. Beste bertsolarien kasuan (diagraman urdin argiz): zozketa bidez saiora heldu dan azken bertsolaria izango da (6. bertsolaria) aldaketa kasuan lehen ordezkapen aukera. Ordezkapena eskatzeko erispide berberak onartuko dira ordezkatzaileak aldaketa egin gura ez dauan kasuetan be. Aldaketa ez egiteko erispideak onartu ezker, aurrekoa (5. bertsolaria) izango litzateke ordezkatzailea.

1. saioa	2. saioa	3. saioa	4. saioa	5. saioa	6. saioa
1. Bertsolaria	1. Bertsolaria	1. Bertsolaria	1. Bertsolaria	1. Bertsolaria	1. Bertsolaria
2. Bertsolaria	2. Bertsolaria	2. Bertsolaria	2. Bertsolaria	2. Bertsolaria	2. Bertsolaria
3. Bertsolaria	3. Bertsolaria	3. Bertsolaria	3. Bertsolaria	3. Bertsolaria	3. Bertsolaria
4. Bertsolaria	4. Bertsolaria	4. Bertsolaria	4. Bertsolaria	4. Bertsolaria	4. Bertsolaria
5. Bertsolaria	5. Bertsolaria	5. Bertsolaria	5. Bertsolaria	5. Bertsolaria	5. Bertsolaria
6. Bertsolaria	6. Bertsolaria	6. Bertsolaria	6. Bertsolaria	6. Bertsolaria	6. Bertsolaria



1. Talde Teknikoaren osaketa:

1.1. Talde Antolatzailea: eskualde bakotxak, ahal dala, ordezkari bat izentauko dau.

1.2. Gai-jartzaileak: eskualde bakotxak, ahal dala, gai-jartzaile bat izentauko dau.

1.2.1. Ordezko gai-jartzailea: saioetan ordezeko gai-jartzailea egongo da, izentautakoak huts egingo baleu, ordezkapena egiteko. Horrez gain, zozketan lagunduko dau eta komunikazio mahaira gaiak eroango dauz.

1.3. Epaimahaia: eskualde bakotxak, ahal dala, epaile bat izentauko dau.

1.3.1. Saio baten, epaile eta bertsolari artean bateraezintzat jotzen da lehenengo mailako senidetza. Halango kasurik gertatu ezker, ordezeko epailea ipiniko da. Onartzen dira bigarren mailako senidetzak.

1.3.2. Epaileek trebakuntza-saioetan parte hartu ostean lortuko dabe "homologazioa". Epaile Taldeak izentauko dau epaimahaia eta Talde Antolatzaileak onartu beharko dau.

- *Udabarria Bertsoan* fasean epaimahaia 3 epaileko talde bik osatuko dabe. Talde bakotxak multzo bat epaituko dau.

1.3.3. Ordezko epailea: saioetan ordezeko epailea egongo da, taldekoren batek huts egingo baleu, ordezkapena egiteko. Horrez gain, saioko bertsoaldien hautaketa egingo dau.

1.4. Idazkaritza: Talde Antolatzaileak izentauko dauz Txapelketako idazkariak.

1.5. Epaile Taldeko kideek, gai-jartzaileek eta idazkariak ezin izango dabe Txapelketaren ganeko aipamen publikorik egin -ez prentsan eta ez bestela- Txapelketak irauten dauan bitartean.

1. Bestelako gertaerak

Argiagaz edo soinuagaz arazorik egon ezkeru: ofiziokako nahiz bakarkako ariketetan, bertsoa hasita badago, ofizioa edo lana akabau arteko egoereari eutsiko jako, epaileek bertsoa entzuteko ahalmena badaukie. Gai-jartzaileak edo bertsolariak eta, beti be, Talde Antolatzaileak bermerik ez dagoala eretxi ezkeru, ofizioa bertan behera geratuko litzateke.

1. Epai erispideak:

Bizkaiko Bertsozale Elkarteko Epaila Taldeak adostu eta onartutako epai erispideetan oinarrituko da Txapelketako bertsoen puntuazinoa.

2. Bertso bakotxaren puntuazinoa:

0-tik 10 puntura artekoa izango da epaile bakotxak bertso bakotxari emon leikion puntuazinoa. Epaimahai osoaren puntu gehiketa izango da puntu kopuru erabagitzaila.

Multzo bakotxa epaile talde batek epaituko du. Multzo bakotxetik bertsolari kopuru bera sailkatuko da Bizkaiko Bertsolari Txapelketara, multzoen arteko puntuazio konparaziorik egin barik.

Saio bakotxaren amaieran, epaimahaiak bere osotasunean bertsolari bakotxari emon deitson puntuazinoa jendaurreko egingo da saioa aurkezlearen bitartez. Informazio hau, aurkezleari emon aurretik, komunikazio arduradunari emongo jako. Gero hedabideen esku jarriko da xehetasun gehiagorik; ofizioki nahiz bakarkako saioetan bertsolari bakotxak eskuratutako puntuen barri emongo da, baina beti be, epaimahai osoaren puntuazinoa.

epaile egongo dira, eta multzoen arteko puntuazioak mo
Bertsolariak sailkapen fase osoaren ostean bakarrik izango dabe epaimahaikide bakotxaren bertso bertso puntuazinoak ikusteko eskubidea; horretarako, antolakuntzagaz harremanetan ipini beharko dabe, batzeko ordua eta eguna zehazteko. Ezin izango da ezelango kopiarik egin. Saio horretan izan diran gainontzeko bertsolarien puntuazinoa ikusteko aukera eukiko dabe, baina epaimahaikideen izenik ez da agertuko.

3. Bardinketa kasuan:

3.1. Sailkapena finkatzeko, hau da, bertsolari biren edo gehiagoren artean izan leitekezan puntu-bardinketak apurtzeko, saioan bertan zein fasearen amaieran, erispide honek segiduko jake:

3.1.1. **Lehen urratsa:** saioa amaituta, edota faseko azken saioa amaituta, epaimahaikoen saioa edo fase osoko banan banako sailkapenak egingo dira, eta epaile bakotxaren sailkapenaren arabera sailkapen-puntu kopurua emongo jako bertsolari bakotxari (adibidez: zazpigarrenari 7 puntu); ondoren, epaimahaikoen sailkapen puntuen batuketa egin, eta koefiziente txikiena daukanaren alde erabagiko da.

3.1.2. **Bigarren urratsa:** bardinketa badago, epaile gehienek aurretik daukien bertsolaria pasauko da aurrera.

3.1.3. **Hirugarren urratsa:** bakarkako lanean puntu gehien jaso daukanaren alde erabagiko da.

- 3.2. Multzo bakotxetik sailkatuko dan bertsolari kopurua parez bada: bertsolari bakotxaren puntuazinoa kontutan hartu barik, zein multzoko bertsolaria pasauko dan aurrera jakiteko, bardinketa kasuetako erispideetara joko da.

Udabarria Bertsotan 2020an burutu beharreko lanak:

Ordena honetan:

- Hiruna bertso ofiziotan, zortziko nagusian.
- Hiruna bertso ofiziotan, zortziko txikian.
- Bakarkako lana:
 - puntua emonda bertso bi zortziko txikian
 - gai bati buruz bertso bi, doinu eta neurri librean.

Puntuazinoaren arabera eukiko dabe kanporaketetara pasatzeko aukera.

Epaimahaia

Udabarria Bertsotan

- Epaille bakotxak 60 €
- Ordezko epaileak 20 €
- Idazkariak 60 €

Prestaketa-batzar bakotxeko dietak €

Gai-jartzea:

Udabarria Bertsotan

- Aurkezleak 60 €
- Ordezkoak 20 €

Prestaketa-beharra

- Gai-jartzaile bakotxak, gehienez 690 €
- Gehienezko aurrekontua 10.000 €

Talde-Antolatzailea:

Batzar bakotxeko dietak €

Saio bakotxeko dietak €

Komunikazio taldea:

Batzar bakotxeko dietak €

Txapelketan zehar:

- Partaide bakotxak, gehienez 550 €
- Gehienezko aurrekontua 2.200 €

Dieta guztiei PFEZri jagokon atxikipena **aplikauko** jake.